

Informatika. Kontrola.

2008ko apirilak 15

Ariketa [3 puntu guztira]:

Formatu jakin bateko fitxategiak irakurtzen dituen programa bat egin nahi da. Programak, fitxategi bat irakurrita, informazio guztia pantailaratzeko, edota puntu baten izena emanda, bere informazioa pantailaratzeko aukera emango du.

Interfazea:

Fitxategi formatua:

Erabiliko dugun **fitxategia XYZ.txt** izango da:

```
! Coordinate output for file:  XYZ.TXT
!23456789 123456789 123456789 123456789
R150    366592.109  4421836.356  420.12
R153    366680.395  4421689.272  416.97
R154    366708.084  4421643.434  415.86
R155    366735.083  4421598.886  415.35
...
```

Egin beharrekoa:

Inplementatu beharreko funtzionalitatea ondokoa izango da:

- **FITXATEGIA IRAKURRI.** [0.75]

Irakurri botoiari emandakoan, *Text1* testu-kutxan idatzitako fitxategia ireki eta **bektore batean irakurriko da**. Dena ondo joanez gero, *PictureBox*-en "*Fitxategia irakurrita. x puntu irakurrita*" idatziko da, non *x* irakurritako puntu kopurua izango den.

- **DENAK PANTAILARATU.** [0.5]

Denak pantailaratu botoiari eman eta gero, puntu guztien datuak *PictureBox*-ean pantailaratuko dira ondoko formatua erabiliz:

ID: R150 [X: 366592.109 Y: 4421836.356 Z: 420.12]

ID: R153 [X: 366680.395 Y: 4421689.272 Z: 416.97]

...

- **BILATU.** [0.75]

Bilatu botoia zapaldutakoan, *Text2* testu-kutxan idatzitako identifikatzailea bektorean bilatuko da eta, aurkituz gero, haren informazioa *PictureBox*-ean idatziko da (aurreko puntuko formatua erabiliz).

- **ERRORE KONTROLA.** [0.75]

Hiru errore ezberdin kontutan hartu behar dira:

- Fitxategia esistitzen dela konprobatu behar da. Bestela, *PictureBox*-ean "*ERROREA: Fitxategia ez da esistitzen*" idatziko da.
- Puntu bat bektorean sartu baino lehen, tokia dagoela konprobatu behar da. Bestela, ez da errorerik emango eta ez da gordeko.
- Puntu baten identifikatzailea bilatzen denean, baliteke puntu identifikatzaile hori ez aurkitzea. Horrelakoetan, *PictureBox*-ean "*ERROREA: identifikatzailea ez da aurkitu*".

- **BOTOIEN AKTIBAZIOA.** [0.25]

Hasieran, bakarrik goiko botoia eta testu-kutxa eta botoia aktibatuta egongo dira. . Fitxategia ondo irakurtzen denean, goiko bi objektuak desaktibatu eta behekoak aktibatuko dira.